

AZKEN UNEAK



© Egilea: Xabier Galarreta

© Itzultzailea: Koro Garmendia Iartza

«Bonba madarikatu horiek... Inoiz ez al diote erasotzeari utziko? Ezin izango naiz hemendik atera... Eginkizun madarikatua. Esan nion nik komandanteari hau infernua izango zela; ez zuela merezi. Hil egingo naiz».

Bigarren Mundu Gerra zen eta F.W. pilotua hegaldi arrunt bat egitera irtena zen. Bere eginkizuna: etsaiaren mugimenduei buruzko informazioa biltzea. Horretarako, altuera baxuan ibili beharra zeukan, eta etsaiaren erasoak jasatera arriskatu. Desesperatua zen haren egoera. Kanoikaden sarean harrapatuta zegoen eta ez zuen infernu hartatik ihes egiteko modurik ikusten. Altuera hartzen saiatu zen.

«Beharbada, beste mila metro igotzea lortuz gero...».

Baina, une horretan bertan, leherketa handi batek zapuztu egin zituen bere itxaropenak. Hegazkinaren atzealdea erretzen hasi zen.

«Akabo», pentsatu zuen. «Dena dela, okerragoa izango zen hegazkinaren aurrealdean eman izan balidate. Horrelakoetan, suak garlinga hartu ohi du, eta pilotua bizirik kiskaltzen da lurrera iristerako».

Segundo batzuetan, mutu gelditu zen. Gero, hitz egiten jarraitu zuen.

«Merezi izan duela iruditzen zait. Horrenbeste ahalegin... Baina zerk merezi izan du gehiago: gerrak ala bakeak? Hemen goitik begiratuta, ez dirudi oso ezberdinak direnik. Orain, ez dio axola. Orain, ezerk ez dio axola. Tipo jatorra izan nintekeen, edota guztien artean gogaikarriena. Zer axola dio? Erortzen ari naiz. Minutu gutxi batzuk baino ez dauzkat naizena izaten jarraitzeko. Kaka zaharra. Apenas kontrola dezaket hegazkin hau...».

–Eh, F.W. Entzuten al didazu? –esan zuen ahots batek hegazkineko irratian–. Non demonio sartu zara?

F.W.k segituan ezagutu zuen M.R.ren ahotsa. Gizon atsegina iruditzen zitzaion, baina amorru pixka bat sentitu zuen haren boza entzutean. Ez al ziren, ba, bere azken uneak? Kontzentratu egin nahi zuen. Gogoratu egin nahi zuen, eta bere azken pentsamenduak bere senideei eskaini, edota bere buruari.

–Erortzen ari naiz, M.R. Utz nazazu.

M.R.k ez zuen berehala erantzun.

–Ez etsi, F.W. –esan zuen azkenean. Urrun eta ahul entzuten zen haren ahotsa.

–Eskertzen dizut, M.R. Baina ez dago irtenbiderik. Atzealdea txikituta daukat eta etsaien erasoak nozitzen jarraitzen dut. Oraingo ez naiz ginbalet eran erortzen hasi, baina segundo gutxi batzuen kontua baino ez da; minutu gutxi batzuen, agian. Utz nazazu. Ez esan ezer. Kontzentratu egin nahi dut. Agur.

Isiltasuna egin zen, eta F.W. gogoetetan murgildu zen berriro.

«Zertan ari nintzen pentsatzen? Bai: zerk merezi duen eta zerk ez... Zer garen eta zer ez. Baina, batez ere, zer izan garen eta zer ez. Orain bai ematen duela amorrua; hain justu ere, irtenbiderik ez dagoenean, dena bukatu dela ikustean... Orduan bai ematen duela amorrua hainbeste desio genuena ez egin izanak. Ergelkeria galanta da esan nahi genituen gauzak ez esan izana... Suposatzen dut horrelako uneetan beti etortzen dela gogora maitatu genuen eta gu maitatzea nahi genuen norbait. Nik ere gogoratzen dut norbait; alde horretatik, ez naiz inolako salbuespena. Bai. E.D. datorkit gogora. Inoiz ez nion esan benetan esan nahi niona... Hori ere ilusio bat dela suposatzen dut. Aukera soil bat zena gure bizitzako "galera handia" bihurtzen dugu, baina harreman horrek beste lokazti batera eramango gintuen, beste kalezulo batera. Hala ere, "beste hura" egin izan bagenu, dena ezberdina izango zela pentsatzeko joera daukagu».

Beste eztanda batek eten egin zuen gogoeta saio hura. Motorraren inguruan jo zuten. Sutan zegoen, baina garlinga oso-osorik zegoen, zorionez, eta babestu egiten zuen sugarretatik. Hegazkinaren muturra pixka bat altxatzen saiatu zen arren, iman indartsu batek bezala lurrerantz eramaten zuen zorigaitzoko indarra sentitzen hasi zen.

«...Eta beste modu batean bizitzeko izan nituen aukera horiek guztiak... Bai gauza bitxia: desintegratzeko zorian nagoela, ideia xebreak datozkit etengabe gogora... Ez al nuen hemen goian "iluminazio" unea izan behar? Ez dakit ba... "Goi pentsamenduak" edo halako zerbait... Hausnarketak egiten ari naiz, ordea: zer egin nezakeen eta zer ez, zer izan nintekeen, zer eduki nezakeen, zer maita nezakeen... Gure bizitza beste bizitza batzuen kalkoa dela dirudi; beti gabeziak izatera bideratuta dagoela. Eta heriotza inguratzen zaigunean degeneratu egiten dela gogoratzeko gaitasuna. Nork daki. Gure gorputzaren defentsa mekanismo bat da agian, edo gure adimenarena... Dena menderatzen saiatzen gara, baina hemen goian, orain bertan, errepidean zer-nolako istripu tragikoa izango duten susmatu ere egiten ez duten igandezaleak baino ez gara. Oso modu xaloan irudikatzen dugu bizitza... Hegazkin madarikatu hau amiltzen hasi da. Ezin dut kontrolatu. Orain ez naiz ni hegazkina daramana; hegazkina da ni naramana. Hegazkina nire hilkutxa da orain; sigla militarrek nire hilarria, eta leherketak hilobirako bidean lagun izango ditudan otoitzak. Inon lurperatuko ote naute? Ala

desagertu egingo da nire gorputza? Sastraken artean, kiskalitako hiri bateko edo fabrika bateko aurrien artean...?»

–F.W.! Entzuten al didazu?

M.R. zen berriro ere. Motel erantzun zuen...

–Bai...

–F.W., begira ezazu ipar-mendebaldera! Hemen gaude. Eskuadrila guztia.

F.W.k ahal bezala begiratu zuen adierazitako norabidean, eta eskuadrila osoa ikusi zuen zeruan. Altuera handian ari ziren hegan egiten, zeruan mota guztietako artaziak egiten, zein baino zein zoroagoa. Agurtzeko modua zuten hura, hor zeudela adierazteko, ez zutela bakarrik utziko esateko...

–Ikusten zaituztet, M.R. Eskerrik asko, mutilak. Apartak zarete...

Isildu egin zen, hunkituta. Ezin izan zuen besterik esan. Astirik ere ez zuen izan horretarako. Bere hegazkina ginbalet eran erortzen ari zen, orduko bostehun edo seiehun kilometrora. Erorikoa pixka bat frena zezakeen, baina besterik ez.

«Bueno, oso ehorzketa polita izan da», pentsatu zuen malko artean. «Ez dute hildako

guztiek izaten euren hobiratzean lagunak ikusteko aukera. Bai gauza bitxia: ikararik ere ez dut sentitzen. Haiei esker... Hara: ludia. Horma bat bezalakoa da, eta nik bere kontra joko dut. Makina bera ere txikitu egingo da. Motorra... Azken biraketak ematen ari da... Bai hutsala den hiltzea... Ni neu ere makina bat besterik izango ez banintz bezala ia... Azken une hauetan hain dirudi hutsala bizitzak... Baina ez du xarma galdu. Ederra da hiltzea eta ederra da bizitzea. Ez naiz ezeren errudun... Hil egingo naiz; beraz, errugabea naiz. Ez da hala gertatzen bizi garenean eta bizitzak betierekoa dirudienean. Orduan bai garela errudun. Baina orain, heriotza hain hurbil dagoenean, ez dago garrasi egin ez dezakeen gizonik, garrasi egiteko eskubidea ez daukanik: errugabea naiz... Azken batean, zer gara gu, nahi bezala erabiltzen gaituen helburu goren baten tresnak baino, zeinaren asmoak ezagutu ere ez ditugun egiten —agian ez ditugu sekula santan ezagutuko, ezta hil ondoren ere...—. Goliat hil egin zen; David hil egin zen. Gobernuak, ideiak, armadak... hil egiten dira... Aintza hil egiten da... Eta zitalkeria... Bidearen bukaerako kolpe ikaragarria besterik ez zaigu gelditzen. Gizakiok sekulako zabortegia gara, eta gure arimak egitate soiletara, biografia inkongruente eta faltsuetara murriztuta uzten ditugu bertan... Aldez aurretik norbaitek guretzat prestatutako eszenografiaren gainean dantzan ibili gara: eskrupulu askorekin batzuk, gutxirekin beste batzuk. Dena idatzita dago. Gure izenak lehen unea baino askoz ere lehenagotik zeuden idatzita. Bizitza

ezkutaketa da, eta gu harrapaketan ibiltzen gara...
Eta egun batean harrapatu egiten gaituzte. Kito
jokoa. Neonezko argiak dituen kartel bat daraman
hilobi bat: Game Over. Hemen Inor Ez datza.
Dandy dekadente bat izan zen, edo misantropo
ikarati eta ilun bat, edo gizaki zoragarri, eskuzabal,
jakintsu eta abenturazale bat... Heriotza guztiak
aldez aurretik iragarrita daude. Eta gure epitafioa
berdina da beti... Hemen Inor Ez datza. Game
Over».